| ESP. KODEA. | 2017MEPO0002 |
|---|---|

| | |
|---|---|
| ESPEDIENTEA | |
| TITULARRA | Beasaingo Udala Turismoa |
| TOKIA | |

**Gaia: "BEASAIN INDARBERRITU PROIEKTUA" KONTRATATZEA.**

**Asunto: CONTRATACIÓN DE LA REDACCIÓN DEL PROYECTO "BEASAIN INDARBERRITU".**

Beasainen 2017ko maiatzaren 16an, 10,00etan.

Beasain a 16 de mayo de 2017, a las 10,00 horas.

BILDURIK / COMPARECEN:

Lehendakaria / Presidente: Leire Artola Ugalde

Etorri diren bokalak / Vocales asistentes: Enkarni Arrieta Telleria, Ane Egurtza Bengoetxea (merkataritzako teknikaria).

Kontuhartzailea / Interventora: Lurdes Alegria

Idazkaria / La Secretaria: Itziar Arostegi

**AURREKARIAK**

**1.-** Alkateak 2017ko martxoaren 22an, ebatzi zuen prozedura irekiaren bitartez, "Beasain indarberritu" proiektua, kontratatzea plegu administratiboa onartuz. Lizitazio prezioa, 46.610,00 € gehi BEZ. Egikaritze epea 12 hilabete.

**2.-** Deialdia, 2017ko martxoaren 28an argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epean lizitaziora, ondorengo enpresak aurkeztu ziren: KUDA ARQUITECTURA Y DISEÑO, S.L. y AXIAL INGENIERÍA, S.L.U.

**3.-** Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, bi lizitatzaileei onartu zitzaien lizitazioan parte hartzea.

**4.-** 2017ko apirilaren 25ean, B kartazala

**ANTECEDENTES**

**1.-** El Alcalde con fecha 22 de marzo de 2017, resolvió contratar por procedimiento abierto la redacción del Proyecto de "Beasain Indarberritu", aprobando para ello los pliegos de condiciones administrativas. Precio de licitación, 46.610,00 € más IVA, y un plazo de ejecución de 12 meses.

**2.-** La convocatoria se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 28 de marzo de 2017. En el plazo de 15 días otorgado para la presentación de ofertas, se presentaron las siguientes empresas: KUDA ARQUITECTURA Y DISEÑO, S.L. y AXIAL INGENIERÍA, S.L.U.

**3.-** Calificada la documentación administrativa, los dos licitadores fueron admitidos a la licitación.

**4.-** Con fecha 25 de abril de 2017, se produjo

ireki zen (proposamen teknikoa), eta merkatal arloko arduradunak, kontratazio mahaiak ontzat eman duen, ondorengo txostena eman du:

el acto de apertura del sobre B (propuesta técnica), tras lo cual la responsable del área de comercio ha emitido el siguiente informe, al cual la mesa de contratación da el visto bueno:

| | **Kuda! Arquitectura y Diseño S.L.** | **Axial Ingeniería S.L.U.** |
|---|---|---|
| **1.PROPOSAMEN TEKNIKOA ETA LAN-EGITASMO ZEHATZA** Propuesta técnica y proyecto de trabajo detallado | | |
| **1.a) Proiektua gauzatzeko metodologia kontratua exekutatu behar duen bakoitzaren lana adieraziz.**<br><br>Metodologia para realizar el proyecto, detallando el trabajo que realizará cada uno a la hora de ejecutar el trabajo | **Bost fase aurkeztu ditu:**<br><br>Ha presentado 5 fases:<br><br>**1.Aktibitate diagnosia.**<br><br>Diágnostico de actividad urbana<br><br>**Herriko hainbat gunetan burutzen diren ekintzen inguruko datuak jaso eta eremu bakoitzaren DAFO analisia egingo da eta garatzeko aukera duten ekintzak aurreikusiko dira. Horretaz gain, grabitazio guneen (Olaran, Dolarea ingurua, Antzizar-Katea, Nekolalde Arana Ezkiaga) diagnosia egingo da, hots, burutzen diren ekintzak zein diren, gune horiek zein egoeratan dauden eta zein berrikuntza behar dituzten, duten gertutasun pertzepzioa zein den, biztanleek erabilerari dagokionean zein ikuspuntu duten… aztertuko ditu.**<br><br>Se recogerán los datos de las actividades que se realizan en algunas zonas y se realizará el DAFO de cada zona. Por otra parte, se identificarán las actividades que tengan prospectiva de evolución. | **Axial Ingeniería S.L.U. enpresak oso azaletik azaldu du proiektua gauzatzeko metodologia. Aipatu bakarrik egiten ditu burutuko dituen zenbait ekintza: dauden baliabideen analisia egingo du, dauden baliabide horiek indartzeko zer egin daitekeen aztertzeko analisi-tareak eta mahai-inguruak burutuko ditu. Bestalde, gune publikoak hobetzeko proposamenak aurkeztuko dira. Ekintza plana burutuko da eta azkenik burutu beharreko ekintzen kronograma zehaztuko da. Horiek aipatu besterik ez ditu egiten, ez du metodolodia zehazten. Bestalde, kontratua exekutatu behar duen bakoitzaren lana zein izango den ere ez du zehazten.**<br><br>**Beraz, esan genezake Axial enpresak EZ DUELA BETETZEN eskatutakoa.**<br><br>La empresa Axial Ingeniería S.L.U. ha explicado de una manera muy superficial la metodología que utilizará para realizar este proyecto. Sólo menciona las actividades que realizará sin detallar en que se basa cada actividad. Estas actividades son: análisis de recursos existentes, tareas de |

| | | |
|---|---|---|
| | También se realizará el diagnosis de las zonas de gravitación (Olaran, Dolarea, Antzizar-Katea, Nekolalde Arana Ezkiaga), es decir, se estudiará que actividades se realizan, se verá en qué estado están y que reformas necesitan, los ciudadanos que percepción de proximidad tienen etc.<br><br>**2.Hiri funtzioaren aukera eremuak**<br>Áreas de oportunidad<br><br>**Lehenengo fasean diagnostikatutako gune "konfliktiboen" DAFO analisia egingo da ingurune bakoitzeko. Bestalde, gune horiek garatzeko eta aktibatzeko markoak zehaztuko dira. Gara daitezkeen marko desberdinen aurreikuspena egingo da: biztanleria aktiboa, komertzio elektronikoa eta merkataritza gerturatzea,Beasaingo ekologia eta ekonomiaren aldaketa eta kultura eta gizartearen aldaketa**.<br><br>Se realizará un análisis DAFO de las áreas conflictivas diagnosticadas en la primera fase. Por otra parte, se definirán los marcos para que esas zonas evolucionen y se activen. Se preverán los distintos marcos que se pueden evolucionar: población activa, comercio electrónico y proximidad, cambio de la ecología y la economía de Beasain, y cambio en cultura y la sociedad.<br><br>**3.Aktibazio eremuak**<br>Estrategias de activación<br><br>**Ekonomia, gizartea eta oro har herria berpizteko burutu daitezkeen ekintzak zehaztuko dira. Horrela aurreko faseetan antzemandako ahulguneei irtenbidea emango zaie.** | análisis y mesa redonda para ver cómo potenciar dichos recursos. También se realizarán propuestas para mejorar los espacios públicos y un plan de actuación. Por último, se realizará un cronograma con las actividades a realizar. Menciona esas actividades pero no concreta la metodología que utilizará para ello.<br><br>Tampoco detalla el trabajo que realizará cada uno a la hora de ejecutarlo.<br><br>Por ello, podemos decir que la empresa Axial NO CUMPLE CON LOS REQUISITOS exigidos en este punto. |

| | | |
|---|---|---|
| | Se concretarán las actividades que se pueden realizar con el objetivo de activar la economía, la sociedad y en general el pueblo. Así se dará solución a las debilidades detectadas en las fases anteriores.<br><br>**4.Roll out edo hedapena**<br>Roll out<br><br>**Guneen aktibazioa lortzeko osagaiak, organigrama eta organigramaren garapena gauzatuko da. Fase honetan erabilera ezaugarriak eta garapen bakoitzaren betebeharrak aurreikusiko dira. Laburbilduta, proiektuak aurreikusiko dira.**<br><br>Se estudiaran los componentes, organigrama y desarrollo del organigrama de la activación de las áreas. En esta fase, también se desarrollarán las características de uso, así como los requerimientos que cada uno de los desarrollos deberá tener. Resumiendo, se preverán los proyectos.<br><br>**5. Estrategien hedapena**<br>Despliegue de estrategias<br><br>**Proiektuen garapenaren jarraipena egingo da.**<br><br>**Bestalde, zehaztuta dago fase bakoitzeko teknikari arduraduna eta eduki teknikariak zein izango diren eta fase bakoitzean bakoitzaren lana zein izango den. Teknikari arduraduna beti Iñaki Arbelaitz izango da eta eduki tenikariak fasearen arabera Izaro Arbelaitz edo Willen van Genugten izango da.**<br><br>**Konklusio modura esan genezake Kuda! Enpresak AURKEZTU DUELA puntu** | |

| | | |
|---|---|---|
| | **honen inguruan eskatutakoa.**<br><br>Se realizará el seguimiento del desarrollo de los proyectos.<br>Por otro lado, debemos mencionar que se detalla quién será el técnico responsable y los responsables de contenido y se concreta cual será el trabajo de cada uno en cada fase. El técnico responsable será Iñaki Arbelaitz en todas las fases y los técnicos de contenido variará según la fase, en algunos casos será Izaro Arbelaitz y en otros Willen van Genugten.<br><br>Como conclusión podemos decir que la empresa KUDA! HA PRESENTADO lo que se le requiere en este punto. | |
| **1.b) Ekintzen kronograma, lan prozesuaren faseak zehaztuz.**<br><br>Cronograma de actividades detallando las fases del proceso de trabajo. | **Goiko puntuan zehaztu bezala, proiektu honek bost fase izango ditu eta fase bakoitzaren kronograma hau izango da:**<br><br>**1.fasea, ekintzen fasea. Lehen hiru hilabetetan gauzatuko da.**<br>**2.fasea, hiri funtzioaren aukera eremuak. 3. Hilabetetik 5.era iraungo du.**<br>**3.fasea, aktibazio estrategiak.**<br>**4.hilabetetik 9.hilabetera izango da.**<br>**4.fasea, roll out-a**<br>**9.hilabetetik 12.era iraungo du.**<br>**5.fasea, 12.hilabetean gauzatuko da.**<br><br>**Kuda! enpresak puntu honi dagokionean ESKATUTAKOA BETE DU.**<br><br>El cronograma de las actividades será el siguiente: | **Axial enpresak ez du ekintzen kronogramarik aurkeztu, ezta lan prozesuaren faserik ere.**<br><br>**Beraz, Axial enpresak EZ DU puntu honi dagokionean eskatutakoa BETE.**<br><br>La empresa Axial no ha presentado ningún cronograma de actividades ni tampoco ha detallado las fases del proceso de trabajo. Por lo tanto, la empresa Axial NO HA PRESENTADO lo requerido en este punto. |

| | | |
|---|---|---|
| | 1º fase, fase de actividades. Se realizará en los tres primeros meses.<br>2º fase, áreas de oportunidad. Desde el 3º al 5ºmes.<br>3º fase, estrategias de activación.<br>Desde el 4º al 9º mes.<br>4º fase, roll out-a.<br>Desde el 9º al 12º mes.<br>5º fase, 12º mes.<br><br>La empresa KUDA! HA PRESENTADO lo que se requiere en este punto. | |
| 1.c) **Fase bakoitza gauzatuko duen arduradun teknikaria eta egin beharreko lana adieraztea.**<br><br>Indicación del técnico responsable de cada fase con detalle del trabajo a realizar. | **Fase guztien teknikari arduraduna Iñaki Arbelaitz izango da eta eduki teknikariak fasearen arabera eta burutu beharreko lanaren arabera desberdinak izango dira.**<br><br>**Beraz, Kuda! enpresak bete du eskatutakoa.**<br><br>El técnico responsable de todas las fases será Iñaki Arbelaitz y los técnicos de contenido serán distintos según la fase y el trabajo a realizar.<br><br>Por lo tanto, la empresa KUDA! HA PRESENTADO lo que se requiere en este punto. | **Ingenieri industriala izango da proiektuaren faseen kudeaketaz arduratuko dena, nahiz eta fase bakoitzean proiektua gauzatzeko ingenieri tekniko mekaniko baten eta ingenieri topógrafo baten laguntza izan. Bestalde, beharren arabera Turismon eta Haur Hezkuntzan lizentziatuko baten laguntza izango du eta baita kultura dinamizatzaile batena ere. Beraz, proiektu osoaren arduraduna ingenieri industriala izango da eta bera izango da proiektuaren fase guztiak burutuko dituena.**<br><br>**Beraz, Axial enpresak BETE DU puntu honetan eskatutakoa.**<br><br>Será el ingeniero industrial quien será el responsable de todas las fases, aunque éste tenga la ayuda de un ingeniero técnico mecánico y un ingeniero topógrafo. Además, según las necesidades contará con el asesoramiento de un licenciado en turismo un dinamizador cultural y un licenciado en Educación Infantil. El responsable de todo el proyecto será el ingeniero industrial. |

| | | |
|---|---|---|
| | | Por lo tanto, la empresa Axial HA PRESENTADO lo requerido en este punto. |
| | | |
| 2.HOBEKUNTZAK | **Baldintza pleguak dio hobekuntza modura baloratuko dela proiektua neurtzeko eta jarraipena egiteko adierazleak finkatzea eta Kuda! enpresak fase bakoitzak izango dituen azpifase bakoitza neurtzeko adierazleak zehaztu ditu.**<br><br>**Beraz Kuda! enpresak hobekuntza modura eskatutakoa ere aurkeztu du.**<br><br>En las condiciones de pliego se dice que se valorará como mejora el establecer indicadores para medir y hacer el seguimiento del proyecto y la empresa KUDA! ha definido cuáles serán los indicadores en cada sub fase de cada fase.<br><br>Por lo tanto la empresa KUDA! HA PRESENTADO lo que se le ha pedido como mejora. | **Axial enpresak ez ditu proiektua neurtzeko eta jarraipena egiteko adierazleak finkatu.**<br><br>**Beraz, puntu honi dagokionean Axial enpresak EZ DU HOBEKUNTZA MODURA ESKATUTAKOA AURKEZTU.**<br><br>La empresa Axial no ha establecido indicadores para medir y hacer el seguimiento del proyecto.<br><br>Por lo tanto, la empresa Axial NO HA PRESENTADO lo requerido como mejora. |
| | **Kuda! enpresak baldintza pleguetan adierazitako 2.irizpidean eta 3. irizpidean eskatutako guztia bete duenez, 50 puntu lortu ditu.**<br><br>La empresa KUDA! HA PRESENTADO todo lo exigido en el 2. y 3. criterio del pliegos, por lo que ha conseguido 50 | **Axial enpresak eskatutako guztitik burutuko dituen ekintzak oso azaletik azaltzea eta fase guztien arduraduna zein izango den esatea bakarrik bete duenez, 5 puntu lortu ditu.**<br><br>La empresa Axial de todo lo que se le ha exigido solamente ha definido las actividades que |

| | | |
|---|---|---|
| | puntos. | realizará pero muy por encima y quien será el responsable de todas fases. Por ello que haya conseguido 5 puntos. |

Plika ireki ondoren, egiaztatu da lizitatzaileek aurkezutako eskaintzak ondorengoak direla:

Producido el acto de apertura de plicas, las ofertas presentadas por los licitadores son las siguientes:

Lizitazio prezioa / precio de licitación: 46.610,00 €, BEZ kanpo / 46.610,00 € IVA excluido.

| | **KUDA ARQUITECTURA Y DISEÑO, S.L.** | **AXIAL INGENIERÍA, S.L.U.** |
|---|---|---|
| **Eskainitako prezioa / precio ofertado** | 38.600,00 | 31.231,20 |

Lizitatzaileek lortutako puntuazioa guztira / total puntos obtenidos por los licitadores:

| | PROIEKTUAREN MEMORIA / MEMORIA DEL PROYECTO | PROPOSAMEN EKONOMIKOA / PROPOSICIÓN ECONÓMICA | PUNTUAL GUZTIRA / TOTAL PUNTOS |
|---|---|---|---|
| **KUDA ARQUITECTURA Y DISEÑO, S.L.** | 50 | 40,45 | **90,45** |
| **AXIAL INGENIERÍA, S.L.U.** | 5 | 50 | 55 |

Beraz, Kontratazio Mahaiak Alkateari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Por todo ello la Mesa de Contratación somete a la consideración del Sr. Alcalde, la siguiente propuesta de acuerdo:

**Lehenik**. "Beasain indarberritu" proiektua idazteko zerbitzua "**KUDA ARQUITECTURA Y DISEÑO, S.L.**"i esleitzea, 38.600,00 €ko prezioan gehi BEZ, baldintza agiri administratibo nahiz esleipendunak egindako eskaintzaren arabera, proiektuan aurreikusiz neurtzeko eta jarraipena egiteko fase bakoitzeko proposatutako eta kontratazio mahaiak onartutako adierazleak. Egikaritze epea 12 hilabetekoa izango da.

**Primero**. Adjudicar el servicio de la redacción del Proyecto de "Beasain Indarberritu", a "**KUDA ARQUITECTURA Y DISEÑO, S.L.**" al precio de 38.600,00 € más IVA, de conformidad con el pliego de condiciones administrativas y la oferta presentada por el adjudicatario, debiendo incluir en el proyecto los indicadores por cada fase, para medir y hacer su seguimiento propuestos y aceptados por la mesa de contratación El plazo de ejecución es de 12 meses.

**Bigarren**. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzan eguneratuta egotearen agiriak.
- **1.930,00 €ko behin betiko fidantza** eratzea.
- 75.000,00 €ko balioa duen, arrisku profesionalen gaineko aseguru bat izatearen ziurtagiria aurkeztea.
- Aldizkarietan publizitate ofiziala egiteko gastuen kontzeptuan, 124,74 €ko ordainketa egin izana.

**Hirugarren**. Merkataritza arloko teknikaria arduradun izendatzea kontratuaren exekuzioa ikuskatzeko.

**Laugarren**. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.

Eta guztiaren adostasun frogatzat bildutakoek dokumentu hau sinatu dute goiburuan adierazitako data eta lekuan.

**Segundo**. Comunicar al adjudicatario que en el plazo de diez días hábiles deberá aportar la siguiente documentación:

- Alta en el impuesto de actividades económicas y acreditación de estar al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias y de seguridad social.
- Constitución de **garantía definitiva por importe de 1.930,00 €**.
- Certificado de haber contratado un seguro de riesgos profesionales por valor de 75.000,00 €.
- Haber realizado el pago en concepto de gastos de publicidad oficial en boletines por importe de 124,74 €.

**Tercero**. Nombrar a la técnico de comercio como responsable de la supervisión de la ejecución del contrato.

**Cuarto**. Una vez presentada la documentación citada, en el plazo de cinco días hábiles, se efectuará la adjudicación definitiva, y posteriormente se deberá proceder a la firma del correspondiente contrato administrativo.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede firman los comparecientes en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Beasainen 2017ko maiatzaren 16an / Beasain a 16 de mayo de 2017